

“Ez dago bi hiru gabe” delakoaren itxaropenez

Loiolako elkarrizketen porrotaren ostean, Euskal Herriko gatazka politikoaren konponbidea ataka ilunean sartuta dago. Atakan irtenbide gutxi ageri da, irudi denez.

Ezker abertzale historikoa argi bila abian da berriro ere.

MIKEL ASURMENDI

POLO SUBIRANISTA osatzea izan zen ezker abertzaleko –legez kanpoko Batasuneko– buruzagien asmoa iragan udaberrian. II-HEk Europako hauteskundeetan lortu zuen emaitza arnasaldia izan zen ezker abertzale historikoak bizi duen estualdian. Udazkena heldu zen eta ideia subiranistaren eragile nagusietakoak (Batasuneko Otegi eta Diez Usabiaga, besteak beste) espetxean sartu zituzten. Espainiako Estatuak ez dio ezker abertzaleari zirrikiturik uzten politika arautuan jarduteko. Alderdien Legea du lanabes juridikoa. Areago, Estrasburgoko auzitegiak Espainiako Gobernuaren jarrera onetsi du.

Indar abertzaleen arteko elkarlanean sortu beharko litzatekeen bilgune subiranistak –oraingoz EAJren partaidetzarik gabe– Konstituzioak zedarrizten duen marko juridiko-politiko gañditzeko balio behar zukeen, hartara, Lizarra-Garaziko Akordioaren eta Anoetako Proposamenaren osteko porrotek “ez dago bi hiru gabe” delakoa beteko zukeen itxaropena baieztauz. Ageri denez, hirugarren saioa ez da aurreko biak izan ziren bezalakoa izango, ezta urrik ere. Edonola ere, ezker abertzalea normalizaziorako saioa bultzatzen ari da hirugarren aldiz.



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Ezker abertzaleak inizatiba politikoa hartu du eta Anoetatik harago doan beste urrats bat emateko agiria plazaratu zuen Altsasun.

Konstituzionalistak EAEko boterea hartzeaz batera, Espainiako marko juridikoaren ikurrak tinko ezartzen ari dira egunez egun.

Altsasutik Altsasura

Ezker abertzale historikoak iniziativa politikoa hartu du enegarrenez. Anoetatik harago doan beste urrats bat emateko bere asmoen agiria plazaratu zuen Altsasun joan deneko azaroan. HBren enbrioa izan zen Altsasuko Mahaia bertan plazaratu zen 1977an. Agirian prozesu demokratikorako oinarri berriak azaldu zituen: “Bide politikoak eta demokratikoak soilik” erabili beharra. Eredua Irlandako George Mitchell senatoriaren printzipioetan funtsatuta dago. Irlandako gatazka bideratzeko balio izan zuten puntuetan oinarrituta, fase politiko berriak “beste estrategia, beste aliantza politikoak eta beste lanabes batzuk eskatzen dituela” adierazi zuten agiriaren aurkezleek. Areago, gainera hori guztia unilateralki eginen du, beste inoren zain egun gabe.

Autodeterminazio eskubidearen aitortpena lortzeko “masa borroka, borroka instituzionala eta borroka ideologikoa, indar harremanen aldaketa eta nazioarteko babesa lortu nahi ditu” ezker abertzale historikoak. “Prozesu politiko berria eta demokratikoa, indarkeriarik eta esku-hartzerik gabe garatu behar dela” dio agiriak. Sakoneko aldaketa eta autokritika egiten ari direla esan zuten Altsasuko agiri berriko eledunek.

Prozesuan, beste eragile politikoekin elkarlanean, ezker abertzalearen saioaren ezberdintasuna antzemango da, bide berri horretan –ETAk orain arteko jarduerari eusten badio– ETAREN estrategiatik aldendu den neurrian. Gainerakoan, atzera ere, agiri berriko hitzak ezerezean gelditu litezke.

Altsasun jaio zen aukera politikoa (HB) 32 urte bete ondoren etorri da agiria, jairolekuan bertan. Trantsizioan nagusitu zuen marko politikojuridikoa gainditzeko hiru negoziatuzio politiko izan dira harrezkero. Aljerreko saioa alde batera utzita



–negoziazioak bestelako parametroetan gauzatu baitziren– HBk eta Batasunak azkeneko bietan parte hartu dute artez edo moldez. Loiolako saioan, antza denez, ETAREN jarrerak eragina izan zuen Batasunaren azken erabakietan. Ezker abertzalea ekimen politiko soilaren bidean aritzea nahi izan dutenak izan dira galtzaile nagusiak orain arteko saioetan. Funtsean eta ondorioz, ezker abertzale politikoa soila sostengatzen duten herri sektoreak.

Helburuak lortzeko estrategiak

Ezker abertzalearen ezaugarri nagusietako bat masa borroka aktibatzeke jatorrizko ahalmena da. Gaur egun, herri borroka gizarte sekto-

UPNk berehala erakutsi dizkio hortzak PSOeri, eta PSNk aspaldian makurtu zuen burua.

Nafarroa Estatu arazoa da inondik ere

reen borroka ahalmen bezala ulertzen badugu, Euskal Herrian zaila da, esaterako, Katalunian egin den herri galdeketa moduko abagunerik sortzea. Oso sektore zabalak Estatuaren errepresioaren aurka mobilizatzen dira, *Egunkariaren* eta errepresaliatuen aldeko elkartasu-

nean, kasu. Baina ezker abertzalearen masa borrokarako ahalmenak behera egin du ETAREN jardunaren eraginez, eta ondorioz, gizarteak iraganen borrokarako zuen grina eta konfiantza ere ahuldu da.

Ezker abertzaleak bultzatu nahi duen aldaketa, barne kohesioaren eta beste alderdi politiko eta eragile sozialekiko erakutsiko duen ahalmenaren arabera bizkortuko da. Esparru instituzionalera itzultzeko, lehenik borroka ideologiko-estrategikoaren lehia-esparrua ondo landu beharko du, baita barne sektoreen arteko adostasuna lortu ere. Itxura batez, Irlandako prozesuan eraginkorrak izandako printzipioak aintzat hartzea “eskatu” dio ETARI. Alabaina, lehia-esparru horretan ez dio soilik beste aukera politikoei irabazi behar, EAJri, EAri edota Aralarri, berbarako, ezker abertzale historikoak borroka armatuaren hautu historikoan ere irabazi beharko du.

Altsasuko kideek indar sozialen harremanen aldaketa gauzatu nahi dutela diote. Giltzarria aldaketa gauzatzeko behar diren aliatuak elkarrekin jardutea da, baita nazioarte mailan behar diren atxikimenduak irabaztea ere.

Konpromisoak zehazteko ordua

Normalizazio politikorako saio berri horretan abertzale subiranis-



ten bilgunea sortu nahi du ezker abertzaleak. Eak ideia bera hausnartzeko deia egin die eragile politiko, sindikal eta sozialei. Batasuna eta EA dira, prozesuan eskuz esku hartzeko hurbilen dauden alderdiak, antza. EAren baitatik sortutako Hamaikabat alderdiak berezko bidea jorratzeak bide hori erraztu dio. Bidean ibiltzen hasita baina, prozesuan funtsezko giltza eta harriarekin –Nafarroaren auzia, Loiolako elkarrizketetan giltzarri– topo egin(en) du Eak, hots, Nafarroako politika instituzional abertzalea garatzen duen Nafarroa Bai (Na Bai) koalizioaren estrategiarekin.

Alegia, aldaketa politikoa ekarri behar duen prozesu batean sartzeko motibo eta berme asko behar dira. Alabaina, alderdi bakoitza bere kapital politikoaren arabera sartu ohi da prozesuen jokoan. Alderdi bakoitzak esparru instituzionalean irabazi duen toki politikoa arriskuan ikusten badu, ez da zalantzazko beste prozesu batean murgiltzera ausartzen. Aralarrek, konparazione, ez du bilgune subiranistan urrats tinkorik emateko aukera argirik ikusi orainokoa. Are gutxiago EAJk, azken 32 urteotan esparru instituzionalean eraiki duenari eusten nahiko lan daukanak, baita etxe barruko egoera tirabiratsuari eusten ere.

PSOEk, Loiolan amaitu zen prozesuan abertzaleekin akordioa lortzeko agertu zuen nahikundea, EAEko instituzioak –bere xedeen arabera– sendotzeko nahikeria bihurtu du. Era berean, PSEk, Akitanian aliatuak dituen Frantziako alderdi sozialistarekin –PSko Alain Rousset Akitaniako kontseilariaren laguntzarekin– instituzionalizatze itxurako bat eman nahi dio Euskal Herriari Europaren markoan. UPNk berehala erakutsi dizkio hortzak PSOeri, eta PSNk aspaldian makurtu zuen burua. Nafarroa Estatu arazoa da inondik ere.

Ezker abertzale historikoak ez dio soilik EAJri, EARI edota Aralarri borroka ideologiko-estrategikoa irabazi behar, borroka armatuaren hautu historikoan ere irabazi beharko du

EAJk PSOE-PSEri instituzioetan egiten dion oposizioa ahula da. Foru aldundiak bermatzen dituen bitartean –instituzioetako aurrekontuen negoziazioei lotuta ezinbestez– ez du estrategia argia finkatuko, ezta alderdi barneko adostasun sendoa lortuko ere.

2011ko udal eta foru hauteskundeak test ona izango dira EAJren estrategia argiagotzeko ager dadin.

Polo instituzionalista vs. subiranista

Euskal Herriarentzako bestelako marko politiko-juridikoa ekar zezaketean aurreko bi prozesuek huts egin izanak arazoaren konplexutasuna agertzen dute. Euskal arazoa deitua, espainolen arazoa ere bada. Alta bada, arazoak arazo, egungo marko juridiko politikoan egokitutako indar politikoak –espainol polo instituzionalista osatzen duten unionistak– erosoago daude euskal subiranistak baino. Konstituzionalistak Eusko Jaurlaritzako boterea hartu ostean marko juridiko espainolaren ikurrak tinko ezartzen eta arruntak bihurtzen ari dira. Lehendakaria Konstituzioaren egunean izan zen Madrilen lehen aldikoz 32 urteetan. Eusko Legebiltzarrak urriaren 25a Euskadiren Eguna izendatzea onartu du. Unionistek badute beren aberri txikiaren eguna.

Euskal instituzioetan diharduten alderdi abertzaleek 32 urteotako une ahulena bizi dute. Eta are ahulagoak izanen dira, 2011n eginen diren udal eta foru hauteskundeetan ezker abertzale historikoaren azkeneko ordezkariak instituzioetatik kanpo geratuko direnean.

Nazio Eztatbaida Gunea

Ezker abertzalearen indarguneak Nazio Eztatbaida Gunea izan behar luke. Gune aproposa da bere lan estrategiko-ideologikoa sustatzeko. Gune indar politikoak dira ETAK epe ertainerako har lezakeen estrategian eragin dezaketanak. ETA udaz geroztik jardun armatuaren “geldialdian” bide dago. Etorkizun hurbilak erakutsiko du, Loiolako elkarrizketak bideratu zituen prozesuaren segidakoa urratzen hasteko aukera dagoen edo ez.

Garaizegi da balizko prozesuaren ondorioren bat antzemateko. Haatik, ezker abertzale historikoa esparru instituzionalera itzultzea erraztuko lukeen prozesua ez bada 2013ko EAEko hauteskundeetarako gauzatzen, euskal auzia epe ertainean –datozen zortzi urteetan– irtenbiderik gabeko arazo bihurtu liteke. ■